

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIEN FAKULTATEA (UPV/EHU)

GRADU AMAIERAKO LANA

2014 – 2015 IKASTURTEA

Ohiko deialdia

**BIZI OHITURA OSASUNTSUAK SUSTATZEKO
JARDUERA FISIKO PROGRAMAK PORTUGALETEN**

Egilea: Borja Fernández Landín

Zuzendaria: Gorka Iturriaga Madariaga

“Vigila tus pensamientos, porque se convierten en palabras.

Vigila tus palabras, porque se convierten en actos.

Vigila tus actos, porque se convierten en hábitos.

Vigila tus hábitos, porque se convierten en carácter.

Vigila tu carácter, porque se convierte en tu destino”

Mahatma Gandhi

AURKIBIDEA

SARRERA	5
BIZI ESTILOAK	6
BIZI ESTILO SEDENTARIOA	7
BIZI ESTILO OSASUNTSUA	10
JARDUERA FISIKOAREN SUSTAPENA	17
JARDUERA FISIKOAREN ERAKUSLEAK MUGATZAILEAK	17
JARDUERA FISIKOAREN ONURAK	19
JARDUERA FISIKOA PORTUGALETEN	20
GAUR EGUNEKO JARDUERA FISIKO EREDUA PORTUGALETEN	20
JARDUERA FISIKOKO GOMENDIOAK PORTUGALETERAKO	29
PORTUGALETEKO JARDUERA FISIKO SUSTATZEKO ESTRATEGIAK ETA PROIEKTUAK	31
EBALUAZIOA	38
ONDORIOAK	39
ERANSKINAK	41
1. ERANSKINA	41
2. ERANSKINA	42
3. ERANSKINA	42
ERREFERENTZIAK	43

IRUDIEN AURKIBIDEA

Irudia 1 Jarduera fisikoa eta ariketaren funtzioa gaitxotasunaren prebentzio eta errehabilitazioan (Heyward, 2008).	9
Irudia 2. Jarduera fisikoa eta ariketaren funtzioa gaixotasunaren prebentzioa eta errehabilitazioan (Heyward, 2008).	9
Irudia 3. Erabateko osasun egoera (Calvo & Albarracín, 2002).	10
Irudia 4. Bizi estiloari dagokionez gaixotasunen arrisku faktoreak (Pancorbo, 2008).	11
Irudia 5. Elikadura orekatua lortzeko argibideak (AHA Guidelines, 2013).	14
Irudia 6. Dieta mediterraneoaren piramidea.	15
Irudia 7. Jarduera fisikoaren oztopoak (2006).	18
Irudia 8. Jarduera fisikoaren onurak (Heyward, 2008).	19
Irudia 9. Jarduera fisikoaren onurak (Heyward, 2008).	19
Irudia 10. Portugaleteko biztanleria 2014 urtean.	20
Irudia 11. Portugaleteko biztanleria 2014 urtean.	20
Irudia 12. Portugaleteko kirol eskolak.	22
Irudia 13. Kirola eskaintzen duten enpresa pribatuak.	23
Irudia 14. Gizarte etxeak.	23
Irudia 15. Portugaleteko kirol klubak.	25
Irudia 16. Udal instalakuntzak.	26
Irudia 17. Portugaleteko eskolen kirol eskaintza.	26
Irudia 18. Haur eta Helduetako udaleko kirol eskaintza.	28
Irudia 19. Ganerantz parkearen irteera bidegorrira.	31
Irudia 20. Portu-Bizi proiektua Portugaleteko mapan.	32
Irudia 21. Ellacuría parkearen luzapena..	34
Irudia 22. Makina bio-osasuntsuak.	34

Irudia 23. Bio-osasuntsu parkearen kokalekua Portugaleteko mapan.	35
Irudia 24. Joko bio-osasuntsuak. Gazia, F.J. (2011).	35
Irudia 25. Churruca Kaiako ibilaldia Portugaleteko mapan.	36

SARRERA

Bizi ohitura osasuntsuak osatzen duten pautak ezartzea eta Portugaleteko kasura bideratzea da lan honen helburu nagusia. Horretarako, gaur egungo egoera zein den planteatu eta hobekuntzak proposatuko ditugu biztanleria aktiboagoa eta bizi ohitura osasuntsuagoak izateko asmoarekin.

Portugaleteko jarduera fisiko eta kiroleko egoera aztertuko da, baita eskaintza eta udalaren jarduera maila ere, Portugaleteko kirol errealitatea zein den ezagutzeko helburuarekin.

Lanaren datuak eta ondorioak testu inguratzeko, jarduera fisiko eta ohitura osasuntsuak osatzen duten kontzeptuei birpasa bat aurkeztuko dugu.

Amaitzeko, Portugalete kasurako aplikagarriak diren proiektu batzuk proposatuko ditugu.

BIZI ESTILOAK

ZER DA BIZI ESTILOA?

Bizi estiloaren kontzeptua zabala da eta adierazpen ezberdinak ditu, horiek guztiak onargarriak. Munduko Osasun Erakundeak dionez, osasun egoera eta jarrera patroien erlazioan oinarriturik bizitzeko modu orokor bat da, faktore soziokulturaletan eta ezaugarri pertsonaletan oinarrituak. (O.M.S., 1989).

Bestalde, pertsona edo talde batek bizitzeko modua ezaugarritzen duten jarrera multzo bezala ulertu daiteke bizi estiloa. (Sánchez Bañuelos, 1996).

Definizio hauek kontuan harturik, baieztatu dezakegu pertsona baten bizi estiloak erlazio naturik dauden 4 faktoreengatik zehaztuta daudela (Rodrigo, 2004). Haien zatiketa ez da zurruna, baizik eta haiek laurak batera bizi estiloak moldatzen dituztela.

- Ezaugarri indibidualak: pertsonalitatea, interesak, izandako hezkuntza,...
- Pertsona mugitzen den ingurune mikro sozialaren ezaugarriak: etxea, familia, lagunak, lan giroa edo ikasketa giroa...
- Faktore makro sozialak: gizarte sistema, kultura, komunikabideak,...
- Ingurune geografikoa bizi egoeratan eragina dauka, eta honek aldaketak izaten ditu gizakiaren eraginarengatik.

Bizi estilo osasuntsua zentzu zabal batean osasunarekin erlazioa duen jarrera multzo edo ohiturak dira. Ongizatea eta bio-psico-sozial mailan pertsonaren garapenekin zer ikusia duena. (Padilla Gálvez & Gaffal, 2013).

Bestalde, arriskuko bizi estilo bezala ulertu dezakegu ongizatearentzako arriskutsuak izan daitezkeen jarrera multzoa eta osasunean ondorio negatiboak izan ditzaketenak. (Rodrigo, 2004).

BIZI ESTILO SEDENTARIOA

Bizi dugun gizartean etengabeko aldaketak pairatzen ditu. Egunero berrikuntza zientifikoak eta teknologikoak agertzen dira. Horietako berrikuntza askok pertsonen bizi kalitatea hobetzen dute, egunerokotasuneko beharrak errazagoak bihurtuz.

Historian zehar gizarte aldaketa ugari izan dira. Gizakien bizi estiloak aldaketa gehiago izan ditu azken ehun urteotan aurreko 10 mila urteetan baino. Janariaren bila distantzia handiak betetzetik, guztia etxe ondoan izatera pasatu gara. 40 urte baino gutxiagoko bizi esperantza izatetik, ia 90 urtekoa izatera.

Paleolitiko aldiaren bizi ziren gizakiekin biologiko mailan konparatuz gero, oso aldaketa gutxi pairatu izan ditugu. Gure genoma ez ditu aldaketa handirik izan. XXI. mendeko gizakiak aintzinako ehiztarien bezalako ezaugarri biologikoak dituzte. Aintzinako gizartetan distantzia handiak bete behar zituzten bizi irauntzeko eta ez zuten kutsadura inguruetan bizitzen. Gizarte horretan indartsuena bizirik irauten zuen. Gizarte horretan jarduera fisikoa bizi estiloarekin bat zetorren (Maldonado).

Ehiztari horien osasuna bikaina zen. Ez zuten hipertentsioa pairatzen, hezurdura gogorragoa zuten eta Gorputz Masa Indizea (GMI) primerakoa zen. Ariketa fisikoa egin behar zuten janaria lortzeko eta ondoren atsedena hartu ahal izateko. Beraz, barau eta ahorakinaren arteko erlazioa orekatsua zen (Maldonado).

Hala ere, gaur egungo bizi estiloa oso desberdina da. Jaki guztiak eskura ditugu ariketa fisikorik egin gabe. Gainera, gantz kopuru gehiagoko jakiak hartzen ditugu, eta fruitu eta barazki kopuru gutxiagoa. Honek desorekak sortzen ditu gure osasunean, bizi estilo sedentarioa deritzona. (Maldonado).

Bizi estilo sedentarioa desoreka larriak sortzen ditu gure organismoan eta sortzen dituen gaixotasun eta patologia, arrisku eta eragozpenen lista luzea da.

Orain dela gutxiko ikerketak diote sedentarismoa hipertentsio arteriala, diabetes eta gizentasuna sortzen dituela (Ramírez & Vinaccia, 2004).

Bizi estilo sedentarioak ez du bakarrik arriskuak sortzen biztanleriaren bizi kalitatean, baizik eta baita gastu ekonomikoan ere, gastu handia sorrarazten dio estatuari (Ramírez & Vinaccia, 2004).

Jarduera fisiko eza munduko laugarren heriotza arrisku handiena da; hipertentsioa, tabako eta gehiegizko odol-glukosaren atzetik.

Jarduera fisiko ezak biztanleriaren osasunean ondorio txarrak dakartza, batez ere gaixotasun kardiobaskularrak, diabetes edo minbizian. Arnasketa egoera baxua jarduera fisiko ezarekin lotuta heriotzaren arrisku faktore antzeman izan da (OMS., 2009).

Gure bizi estiloaren eboluzioa jarduera sedentarioetara bideratzen gaitu. Okupazio denbora (hezkuntza eta lanean) eta aisialdian, denbora gehiago erabiltzen dugu jesarrita egotera, pantaila aurrean egotera (telebista, ordenagailua, bideo-jokoak,...


Europar biztanleria egunero 6 ordu egoten dela eserita Balioetsi izan da. Azken 30 urteotan ingurune fisikoak traba gehiago sortu izan ditu jarduera fisikoa egin ahal izateko (Hernández, 2010).

Esanguratsua da Euskadin 4 – 18 urte bitarteko %12,2 pertsona gizentasuna duela. (Departamento de Sanidad, 2005). 7 eta 18 urte bitarteko %4a hipertentsio arterial dute eta %2,3 200mg/dl baino kolesterol maila altuagoa dituzte.

Denbora gehiago eserita egonez gero; diabetes, gaitz kardiobaskularrak edo minbizia pairatzeko arriskua handiagoa da. Jarduera sedentarioak murriztuz gero, arriskuak gutxitu daitezke. (Sedentary behaviour and obesity, 2010).

Jarduera sedentarioen denbora murriztapenak osasun inguruko arrisku gutxiago dakartza. Telebista ikustek bi ordu baino gehiagotan zehar, osasun fisiko eta psikologiko txarragoarekin erlazionatuta dago. Jarrera sedentarioa

gutxitzeak Gorputz Masa Indizearen murriztapenak dakartza (Tremblay et al, 2011).



Irudia 1 Jarduera fisikoa eta ariketaren funtzioa gaixotasunaren prebentzio eta errehabilitazioan (Heyward, 2008).

GAIXOTASUN KARDIOBASKULARRAK	ALDAKETA MUSKULUESKELETIKOAK
<ul style="list-style-type: none"> - Gaixotasun koronarioa - Bihotz gutxiegitasuna - Miokardiopatia - Hipertentsioa - Aterosklerosia - Hiperkolesterolemia 	<ul style="list-style-type: none"> - Lumbar mina - Artrosia - Hezur hausturak - Osteoporosia
ALDAKETA PSIKOLOGIKOAK	BIRIKIETAKO GAIXOTASUNAK
<ul style="list-style-type: none"> - Depresioa - Gogo – aldartea - Antsietatea 	<ul style="list-style-type: none"> - Asma - Bronkitis kronikoa - Enfisema
MINBIZIA	ALDAKETA METABOLIKOAK
<ul style="list-style-type: none"> - Mama - Colon - Prostata - Birikiak 	<ul style="list-style-type: none"> - Gainpisua - Gizentasuna - Diabetes


Irudia 2. Jarduera fisikoa eta ariketaren funtzioa gaixotasunaren prebentzioa eta errehabilitazioan (Heyward, 2008).

BIZI ESTILO OSASUNTSUA

Munduko Osasun Erakundeak dionez, osasuna erabateko ongizate fisiko, mental eta soziala da, eta ez bakarrik gaixotasun eza.

Definizio honekin osasun kontzeptua zabala bihurtzen da. Izan ere, osasuna baino, ongizateari buruz hitz egiten da. Osasuna garrantzitsua da guztiok erabateko ongizate fisiko, mental eta soziala lortzeko. Baina erabateko egoera hori desberdina da pertsonaren arabera. Bakoitzaren natura, ingurunea, ekonomia edo bizi estiloen arabera neurtzen delako.

Erabateko osasun egoera lortzeko eskema honetan agertzen diren ohiturak kontuan hartu behar ditugu:



Irudia 3. Erabateko osasun egoera (Calvo & Albarracín, 2002).

Osasuna ez da neutralitatezko egoera iraunkorra, baizik eta gure jarreraren arabera egunero aldatu daiteke.

Jarrera positiboa bada, osasun egoera hobetuko da, erabateko osasun egoeratarako hurbilduz. Bestalde, bizi ohiturak osasuntsuak ez badira, osasun egoera hondatuko da.

Formazio urteetatik ikasten hasten dugunetik, ohiturak usadioak bihurtu arteko bizitzeko modua da bizi estiloa. Bizi estiloak moldatu daitezke osasun egoera on bat lortzeko. Horregatik, garrantzitsua da osasuntsuak ez diren

ohiturak saihestea; droga kontsumoa, jarduera fisiko eza, elikadura txarra, estres eta postura txarrak, esaterako.

Zerbait eginaren eginez hartzen den aritzeko era edo modua bezala ulertu dezakegu ohitura hitza (Harluxet hiztegia).

Bizi ohiturak eguneroko bizimoduan gureak berezkoak diren jarrerak dira. Bizi ohitura moten artean, osasuntsu giza definitu dezakegu gure ongizate fisikoan, mentalean eta sozialean eragina positiboa dutenak.

Bizi kalitatea hobetzeko lortu behar dugu gizartea aktiboago bihurtzen, baita ere obesitatea murriztu, elikadura hobetu, atsedena hobetu eta kaltegarriak diren substantzien kontsumoa saihestu.

Ohitura multzo hauek bizi estilo osasuntsua osatzen dute; onura fisikoak, antropometrikoak, morfologikoak, psikikoak, kognitiboak, sozialak eta afektiboak dituztenak.

Bizi estiloari dagokionez, gaixotasunen arrisku faktoreak honako hauek dira (Pancorbo, 2008):

- Kaltegarriak diren substantzien kontsumoa
- Elikadura ez osasuntsua
- Jarduera fisiko eza edo sedentarismoa
- Bakardadea
- Kultura maila baxua
- Urbanizazio maila altua
- Lan egoera kaltegarria
- Estres
- Ezegonkortasuna edo arazo familiarrak

Irudia 4. Bizi estiloari dagokionez gaixotasunen arrisku faktoreak (Pancorbo, 2008).

Lan honetarako erdiratuko gara honako hauetan, jarduera fisikoaren promozioari dagokionari erlazionaturik daudelako:

- Jarduera Fisikoa
- Elikadura
- Atsedena
- Kaltegarriak diren substantzien kontsumo eza

Jarduera Fisikoa + Atsedena + Elikadura - Drogak = ONURAK

(Ramos, P. 2004).

Bizitzan zehar gaixotasunen intzidentzia ezberdina da aktiboak diren pertsonengan, inaktiboak direnekin konparatuz. Jarduera fisiko eza hazkuntza eta garapen arazoak sortzen ditu eta kasu txarretan adin helduko garaian heriotza goiztiarrean eragin dezake (Department of Health, 2011).

Gizentasuna sindrome metabolikoaren oinarrizko erreferente bat da. Jarduera fisikoaren gehikuntza eta sedentarismoaren murrizketa, gizentasuneko epidemiari aurka egiteko gakoa da (World Health Organization, 2000).

Biztanleria aktiboaren gehikuntza gastu publikoaren murrizketa dakar (Impacto económico del Deporte en Euskadi, 2002).

JARDUERA FISIKOA

Jarduera fisiko ezaren gehikuntza osasun publikoaren arazo handienetariko bat da. Balioetsi da 2008 urtean, jarduera fisiko ezak mundu mailan heriotza goiztiarraren %9a eta 5,3 milioi heriotza sortu zituela, heriotzako 4. kausarik handiena izanez (Tully, M.A. & Hunter, R.F., 2015).

Jarduera fisiko erregularrak gaitz kardiobaskularrak, kardiopatiak, infartuak, diabetes, minbizia, gizentasuna eta arazo psikologiak ekiditzen laguntzen du (Lee, 2012).

Aspektu fisikoan dituen onurak aparte, jarduera fisiko erregularrak heldu nagusiengan erorketak ekiditzen laguntzen du; baita gazteengan ikasketa porrota saihesten du (Department of Health (UK), 2011).

Jarduera fisikoa sustatzeak kutsadura gutxitzen laguntzen du ohitura osasuntsuen bidez, eskola edo lanera oinez edo bizikletaz joanez. Horrelako ariketak hiriaren konektibitatean laguntzen du.

Pertsona guztiak egunero aktiboak izan beharko lirateke, astero ariketa fisikoko gutxieneko 150 minutu lortuz. Hala ere, biztanleriaren 2 heren ez dute osasunerako ariketa fisiko onuragarria egiten.

Jarduera fisiko mailak baxuak dira, pertsona nagusiengan, ezinduetan, patologiekin edo obesitatearekin batez ere. Jarduera fisikoa egiteko lekuak sortzeak, jarduera fisikoaren maila handitzen du.

Jarduera fisikoak laguntzen du independente izatera pertsona nagusiengan, baita gaixotasun kronikoak saihesteko ere. (Daniels, 2008). Osteoporosi edo artritis bezalako artikulazio arazoak saihesten ditu.

2013 urtean egindako Euskal Herriko Osasun Inkestari dagokionez, aipatzekoa da:

Euskal Herriko biztanleriaren %31 ez du OMEk proposatutako gutxieneko jarduera fisikorik egiten. Horrek esan nahi du heren bat inaktiboa dela, %34 emakumeak eta %27 gizonak izanda.

Biztanleriaren %67k dio jarduera fisiko osasuntsua egiten duela, proportzioa handiago gizonengan izanez eta 15-24 urte tartea aktiboena izanez. Bestalde, 75 urte baino gehiago duten pertsonak inaktiboak dira.

Gorputz Masa Indizeari dagokionez, gainpisua nabarmena da %43arenkin eta %13,9 gizentasunarekin. GMI normala %42,4^a dute eta %0,7 eskasa.

Aktiboa den biztanleriaren portzentaiak handiagotu egin dira gizonengan (%68tik 2007an, %73ra 2013an) eta ez hainbeste emakumeengan (%65tik 2007an, %66ra 2013an). Hau da, jarduera fisiko maila handiagotu egin da gizonengan eta mantendu egin da emakumezkoetan.

ELIKADURA

Elikadura orekatua izatea ezinbestekoa da bizi estilo osasuntsua izateko eta gaitz kardiobaskularrak edo digestiboak ekiditeko.

Barazki eta fruitu kontsumoa handiagotzea garrantzitsua da, karbohidrato eta gantzen kontsumoa gutxitu, baita janari eskasia edo gehiegizkoa eta otordu lasterrak saihestea ere.

Gorputz pisu egokia lortzeko otorduen ahorakina eta jarduera fisikoa orekatuak izan behar dira.

American Heart Association (AHA) dionez, honako hauek dira elikadura orekatua lortzeko pautak:

ELIKADURA OREKATUA LORTZEKO PAUTAK
Bihi osoko zerealak eta fruitu eta barazki mota ezberdinak kontsumitu.
Arraina bi egun astero kontsumitu.
Gantz saturatuak gutxitu (<%7), trans gantzak (<%1) eta kolesterola <300mg/egun.
Gantz hidrogenatuen kontsumoa gutxitu.
Edari eta janarien gehiegizko azukrea saihestu.
Gatzik gabeko edo gatz gutxiko elikagaiak jan.
Neurrizko alkohola.
Etxetik kanpo janez gero, AHA oharrak jarraitu.

Irudia 5. Elikadura orekatua lortzeko argibideak (AHA Guidelines, 2013).

Euskal Herriko biztanleriaren heren bat ez du egunero fruituak jaten, %28,4ak bat edo bi fruitu zati jaten ditu egunean zehar, %25,9ak 3 edo 4 fruitu zati eta bakarrik %12,5ak 5 edo gehiago jaten ditu. Fruitu eta barazkiak egunero hartzen dituenen artean, emakumeak gehiengoa da. Gizonak haragi eta hestebete gehiago jaten dute.


Gorputz pisuari dagokionez, 2002 eta 2007 urte artean izandako gehikuntzaren ondorioz, 2013an gizonen %14a eta emakumeen %12a gizentsuak dira.

Gizentasuna duten pertsonen proportzioa adinarekin areagotzen joan da. 65 urte baino gehiago duten pertsonen artean %20 gizentsuak dira. Gizentasun mailak handitu egin dira emakume gazteen artean, 25 eta 44 urte artean eta 75 urte baino gehiagoko gizonengan ere.

Dieta Mediterraneoaren Piramideak: Egungo bizimodu bat
 Populazio helduarentzako gida

Bertako urritasun eta ohituretan oinarritutako anoa neurria

Ardoa neurrian eta ohiturak errespetatuz



Irudia 6. Dieta mediterraneoaren piramideak.

ATSEдена

Atsedena eta loa ezinbestekoak dira osasunerako eta bizi kalitaterako. Atsedena eta lorik gabe eguneroko jardueretako kontzentrazio gaitasuna gutxitzen doa eta, horrekin batera, suminkortasuna areagotzen da (Stora, 1990).

Jarduera mental eta fisikoaren murrizketa egoera bat da atsedena. Pertsona freskoa, gaztetua eta eguneroko jarduerekin jarraitzeko prest egotearekin erlazionatuta dago.

Atsedena ez da bakarrik inaktibitatea. Lasaitasuna beharrezkoa da, estres emozional gabeko erlaxazioa eta antsietatearen askatasuna. Jarduera fisikoa egitea garrantzitsua da atsedena izateko, jarduera fisiko kopuru moderatua loan laguntzen baitu, baina gehiegizkoa bada zailtzen du. Loa hartu baino bi ordu lehenagoko jarduera fisikoa erlaxazioan laguntzen du.

Ohizko kirol edo jarduera fisikoa egitea gomendagarria da atsedena egokia lortzeko. Eguneroko gutxienez 8 ordu lo egitea ere gomendatzen da.

2013 urteko Euskal Herriko Osasun Inkestak dioenez, biztanleriaren %87a 7 ordu baino gehiago egiten dute lo, %14a 5 eta 6 ordu artean eta %0,3 5 ordu baino gutxiago.

SUBSTANTZIA KALTEGARRIEN KONTSUMO EZA

Kaltegarriak diren substantzien kontsumoa intoxikazioa, abstinentzia sindromea, aldaketa psikikoak, ikasketa arazoak, marjinazioa, istripuak edo delinkuentzia eragin dezakete. Horregatik, garrantzitsua da kaltegarriak diren substantzien kontsumoa saihestea eta osasuntsuagoak diren aisialdi aldaketa bilatzea.

Euskal Herriko biztanleriaren %24,7a erretzen du gaur egun, %4a noizbehinka eta %27,2a erretzaile ohiak dira. Biztanleriaren %43,9a ez du inoiz erre egin.

2010eko abenduaren 30eko 42/2010 legeak, antitabako legeak, talde erabilerako eta lokal publikoetan erretzeak debekatzen du. Lege honek aldaketa positiboak eragin izan ditu.

Erretzaileen arteko %50 10 zigarro baino gutxiago kontsumitzen ditu egunero eta %11 20 zigarro baino gehiago erretzen ditu.

Azken urteotan tabako kontsumoa asko gutxitu egin du. Gizonen artean 2002 urtean %30koa zen, 2008 urtean %28 eta 2013 urtean %24. Emakumeen artean 2013 urtean %19^a erretzen zuen.

Alkoholari dagokionez, gizonen %12 eta emakumeen %5^a edaten dute alkohola modu intentsiboan hilean behin gutxienez. Kontsumo modu honek gutxitzen doa adinarekin. Aipagarria da gazteen arteko kontsumoa, gizonen artean %18 eta emakumeen artean %9 izaten.

JARDUERA FISIKOAREN SUSTAPENA

Azken hamarkadetan inaktibitatea saihesteko inizatiba ugari sortu dira (Daugbjerg, 2009). Biztanleriaren sektore askotan ikusi izan da jarduera fisiko era kirolerako interesa, eta jendeak barneratuta dauka jarduera fisiko egiteak onuragarria dela osasunerako, baina honen aplikagarritasuna ez da ikusten (Bull, 2006).

Emakumeak gizonak baino jarduera fisiko kopuru gutxiago egiten dute, praktikarako oztopo gehiago izaten dituzte eta bertan behera uzteko indize handiagoak dituzte (Departamento de Sanidad del País Vasco, 2006).

Eraginkortasun handiagoa lortzeko, pertsonen bizi estiloan eragina izaten dituzten baldintzetan aditasuna jarri behar zaie, askotan jarduera fisikoaren erlazorik ez dutenak baina jarduerak baldintzatzen dituztenak: lanpostu batera sartzean, umetxo bat izatean, hezkuntza zikloaren aldaketan, gaixotasun bat izan edo familiar bat zaintzea. Egoera hauek jarduera fisikorako oztopoak sortzen dituzte (Allender, 2008).

Gaixotasunen prebentzioa eta osasunaren sustapena munduko osasun publikoan lehentasuneko garrantzia duten gaiak dira. Beraz, gaixotasunak saihesteko eta osasuna sustatzeko bizi estiloengan esku hartzea jarduerarik eraginkorrenetariko bat da. Hori dela eta, gero eta mediku gehiago gomendatzen diete pazienteei bere osasunerako txarrak diren hainbat jarrera aldatzea.

JARDUERA FISIKOAREN ERAKUSLEAK MUGATZAILEAK

PRAKTIKARAKO ARRAZOIAK

Euskal Herriko Autonomi Erkidegoan jarduera fisiko eta kirola praktikatzeko arrazoi nagusienak honako hauek dira (Encuesta de hábitos de vida deportivos en la CAPV, 2009):

- Dibertsioa.
- Sasoian egon.
- Osasuna, preskripzio medikoa.
- Deskonektatu.

Jarduera fisikoa egiteko arrazoirik nagusiena dibertsioa da. Ondoren, sasoian egotea eta medikuaren preskripzioa, osasunaren bilaketa eta eguneroko ohiturarik deskonektatzeko datozte. Norbera hobetu eta kirol errendimendua lortzea %4 suposatzen dute bakarrik.

Sexuak aztertzerakoan, emakumeak jarduera fisikoak sasoian egiteko egiten dituzte (%36) eta dibertitzeko (%26). Gizonak, ordea, dibertsioagatik (%50) eta sasoian egoteagatik (%17) batez ere.

JARDUERA FISIKOA EZ EGITEKO OZTOPOAK

Physical Activity and Health. Evidence for action (2006) dokumentuak dionez jarduera fisikorik ez egiteko oztopo nagusienak honako hauek dira:

JARDUERA FISIKORIK EZ EGITEKO OZTOPOAK

Denbora falta

Denbora txarra

Kirolari profilarekin bat egiten ez delaren pertzepzioa

Segurtasun pertsonalarekin erlazionaturiko aspektuak

Nekea sentitu edo atsedenean egotea nahiago izan

Auto-pertzepzioak

Pertsona nagusiengan ahultasuna

Pertsona nagusiengan erorketak izateko beldurra

Instalakuntza falta

Kideen falta jarduera fisikoa konpainian egiteko

Ezaguerak

Irudia 7. Jarduera fisikoaren oztopoak (2006).

Jarduera fisiko ez egiteko arrazoiei dagokionez, %45,4 denbora faltagatik da, %31 gogo falta, %14 osasun arazoak, %2 ekonomia arazoak eta %1 instalakuntza faltagatik. Jarduera fisikorik ez egiteko arrazoi nagusiena denbora falta da eta beste jarduera batzuen nekearengatik.

Orokorrean, jarduera ohikoenak euskaldunen artean dira: eserita egotea (41%), zutik lan egitea (%38), karga txikien garraioa (%12) eta karga pisutsuen garraioa (%7,4).

JARDUERA FISIKOAREN ONURAK

Jarduera fisikoak onurak dakartza ekonomian gastu publikoan inpaktu positiboak dituelako, hezkuntzan edo lanean (Impacto económico del Deporte en Euskadi, 2002). Jarduera fisiko dependentzia ekiditzen du pertsona nagusien artean eta gaixotasun kronikoak saihesten ditu (Daniels, 2008).

Jarduera fisikoa egiteak murrizketa ekonomikoak dakartza osasun publikoan. Urtero 3 eta 12 milioi artean gastatzen dira inaktibitatearen ondorioz (Physical Activity Guidelines Advisory Committee (PAGAC), 2008).

JARDUERA FISIKOAREN ONURAK	
UME ETA GAZTEENGAN	
Arnas egoera hobetzen du.	
Gihar egoera hobetzen du.	
Hezur Osasuna hobetzen du.	
Osasun kardiobaskularreko egoera hobetzen du.	
Gorputz konposaketa hobea lortzen du.	
Depresio sintoma gutxiago lortzen ditu.	

Irudia 8. Jarduera fisikoaren onurak (Heyward, 2008).

HELDU ETA NAGUSIENGAN	
GUTXITU:	HOBETU:
Heriotza goiztiarraren arriskua.	Arnas egoera.
Gaixotasun kardiobaskularren arriskua.	Giharren gaitasuna..
Iktus arriskua.	Funtzio kognitiboa nagusiengan.
Hipertentsio arterialaren arriskua.	Osasun funtzionala.
Dislipemien arriskua.	Hezur dentsitatea.
Diabetes mota 2ren arriskua.	Lo kalitatea.
Sindrome metabolikoaren arriskua.	Erorketak ekidin
Minbizi arriskua.	Gorputz pisua kontrolatu.
Pisu gehikuntza.	Gihar eta abilitatearen garapena.
Aldaka haustura.	Ongizate psikologiko sentazioaren sormena.
Depresio eta antsietate pertzepzioa.	

Irudia 9. Jarduera fisikoaren onurak (Heyward, 2008).

JARDUERA FISIKOA PORTUGALETEN

GAUR EGUNEKO JARDUERA FISIKO EREDUA PORTUGALETEN


Oraingo honetan, Portugaleteko errealitateari buruzko diagnostiko bat azalduko dugu. Diagnostikoa egiteko hainbat iturrietatik lortu izan dugu informazioa: Estatistika Nazionalako Erakundea, Eusko Jaurlaritzaren Osasunerako Inkesta, Portugaleteko Udaletxearen web orritik eta Clementina Sevillak, Portugaleteko kirol arduradunak, eskaini dizkigun datuen laguntzaz.

PORTUGALETE ZENBAKIETAN

Gaur egun Portugalete 47.117 biztanle ditu, urteak pasa ahala kopuru hau gutxitzen joan izan da.

ADINA	BIZTANLERIA	EHUNEKOA
0 – 14 urte	5.352	%11,3
15 – 24 urte	3.451	%7,3
25 – 44 urte	12.435	%26,6
45 – 64 urte	13.942	%29,5
65 – 74 urte	5.730	%12,1
> 75 urte	6.107	%12,9

Irudia 10. Portugaleteko biztanleria 2014 urtean.



Población de PORTUGALETE por sexo y edad 2014 (grupos quinquenales)

EDAD	HOMBRES	MUJERES	TOTAL
0-4	856	878	1.734
5-9	965	903	1.868
10-14	866	884	1.750
15-19	898	755	1.653
20-24	938	860	1.798
25-29	1.199	1.107	2.306
30-34	1.554	1.402	2.956
35-39	1.871	1.744	3.615
40-44	1.851	1.807	3.658
45-49	1.843	1.886	3.729
50-54	1.791	1.894	3.685
55-59	1.601	1.829	3.430
60-64	1.463	1.635	3.098
65-69	1.470	1.687	3.157
70-74	1.162	1.411	2.573
75-79	1.004	1.400	2.404
80-84	753	1.277	2.030
85-	521	1.152	1.673
TOTAL	22.606	24.511	47.117

Fuente: Instituto Nacional de Estadística
Padron Municipal 2014

Irudia 11. Portugaleteko biztanleria 2014 urtean.

Portugaleten 65 urte baino gehiago duen biztanleria %25koa da. Bestalde, %18,6^a 25 urte baino gutxiago du eta biztanleriaren %62 40 urte bano gehiago du.

Langabezia tasa: Portugaleteko biztanleriaren langabezia tasa Bizkaia osokoa baino altuagoa da eta, Bizkaikoa, Euskadi osokoa baino altuagoa ere. Egoera hau adin guztietan gertatzen da eta 2007-2013 urte artean biztanleriaren langabezia proportzioa handitu izan da.

	Portugalete	Bizkaia	Euskadi
- 16 – 64 urte	%13,18	%12,46	%11,7
- 45 urte baino gehiago	%13,02	%12,23	%11,5
- Epe luzekoa	%7,06	%6,39	%5,8

Biztanleriaren ekonomia baliabideak. Portugaleteko biztanleriaren errenta Bizkaikoa baino baxuagoa da eta hau Euskadiko baino baxuagoa ere.

- Jendearen errenta totala	17.043€	19.187€	19.715€
----------------------------	---------	---------	---------

Garraio eta mugikortasuna. 16 urte baino gehiagoko biztanleriaren ehuneko oso handia udaletik kanpo ikasi edo lan egiten du.

- Portugaletetik kanpo lan egiten / ikasten duen 16 urte baino gehiagoko biztanleria:	%79,53	%64,53	%56,4
	%70,35	%69,42	%64,2

GAUR EGUNEKO JARDUERA FISIKO ETA KIROLAREN EGOERA PORTUGALETEN

Gaur egun jarduera fisiko eta kirolaren egoera ikertzeko Portugaleteko Udaletxetik eskaintzen den eskaera aztertuko dugu.

Udaletxeko kirol eskaintza Deportiva Municipal de Portugaletetik egiten da (Demuporsa, S.A.), Udaleko kirola kudeatzen duen erakunde publikoa. Baita ere jarduera fisiko eta kirola eskaintzen duten zer nolako kirol klubak eta kiroleko erakunde pribatuak dauden ikusiko ditugu.

Hori dela eta, udaleko kirol eskaintza testuinguruan jartzeko kirol eskola eta klubak, enpresa pribatuen, ikastetxeen eta udalaren instalakuntzen datuak tauletan irudikatuko ditugu.

PORTUGALETEKO KIROL ESKOLAK

Portugaleten 13 kirol eskola daude, kirol gazteen prestakuntzan arduratzen direnak. Aipagarriak dira atletismo, saskibaloia eta areto futbolaren kasuak, non 2 eskola ezberdinak dauden kirol berdinerako. Bestalde, eskubaloi eskola baten presentzia faltan botatzen da.

ESKOLA	ERANKUNDEA	ADINAK
XAKEA	PEÑA AJEDREZ PORTUGALETE	7 urtetik aurrera
ATLETISMO	C.A. PORTUGALETE	7 – 14 urte
ATLETISMO	C.A. BIHOTZ ARATZ	6 – 14 urte
SASKIBALOIA	JARRILLEROS S.K.	5 urtetik aurrera
SASKIBALOIA	C.D. ORIBELTZA	6 urtetik aurrera
TXIRRINDULARITZA	S.C. IRU HERRI	8 – 18 urte
FUTBOLA	CLUB PORTUGALETE	6 – 7 urte
ARETO FUTBOLA	C.D. PORTUGALETEKO IRAULTZAILEAK	Mutilak: 6 – 13 urte Neskak: 6 – 16 urte
ARETO FUTBOLA	C.D. JARRILLEROS	4 – 13 urte
ESKU PILOTA	IZARRA PILOTA ELKARTEA	6 urtetik aurrera
ARRAUNA	C.R. SAN NICOLAS	12 urtetik aurrera (mutilak)
MAHAI TENISA	GURE TALDE MAHAI TENISA	7 urtetik aurrera
WATERPOLO ETA	DEPORTIVA NAUTICA	6 urtetik aurrera
IGERIKETA	PORTUGALETE	

Irudia 12. Portugaleteko kirol eskolak.

KIROLA ESKAINTZEN DUTEN ENPRESA PRIBATUAK

Eskasa da udalean kirola eskaintzen duten enpresa pribatuen kopurua, bakarrik 6 baitaude. Hauetako hiru fitness jarduerak eskaintzen dituzte, beste bi dantzetara bideratuta eta azkena arte martzialetan jarduteko aukera ematen dute.

ENPRESA	JARDUERAK
BODY – GYM	FITNESS JARDUERAK
QUORUM BALLONTI	FITNESS JARDUERAK
SANTA MARIA	FITNESS JARDUERAK
GIMNASIO YAMABUKI	ARTE MARTZIALAK
TROPIC DANCE	DANTZAK
DANZA SWING	DANTZAK

Irudia 13. Kirola eskaintzen duten enpresa pribatuak.

GIZARTE ETXEAK

2005 urtetik hona Aspaldiko zahar-etxeak, Portugaleteko Udalaren Gizarte Ongizatearen departamentuaren laguntzaz, gizarte etxeen animazio sozio kulturalerako zerbitzuak kudeatzen ditu. Udaleko gizarte etxeak honako hauek dira:

GIZARTE ETXEAK
BUENAVISTA
VILLANUEVA
SAN ROQUE
GURE – BAKEA

Irudia 14. Gizarte etxeak.

Gizarte etxe hauek Portugaleteko pertsona nagusien eskaerak betetzera bideratuta daude. Gizarte etxe hauen eskaintza era askotarikoa da. Jarduera eta tailer desberdinak ospatzen dira. Gizarte etxeen helburu nagusienak hauek dira:

- Aisialdirako eskaintza egokia sustatzea.
- Partehartze aktiboa suspertzea eta eskaintzea.
- Haien gaitasunak indartzea eta beraien interesa, motibazioei eta beharrei erantzuna ematea.

Jarduera gehienak tailerretan egiten dira. Memoriakoak, irakurketa eta idazkera, erlaxazioa, psikomotrizitatea, gimnasia, osasunerako hezkuntza, sukalde tailerrak, dantza, eskulanak, xendazaletasuna, teatro, kafe tertulia, euskara,...

PORTUGALETEKO KIROI KLUBAK

27 kirol kluba daude Portugaleten, 19 modalitate ezberdinekoak. Portugaleteko hiritar askoren kirol praktika federatuaz arduratzen dira. Aipatzekoa da atletismoko eta areto futboleko 3 klub ezberdinak egotea edo futboleko eta saskibaloiko bi. Eskubaloia kasuan bakarrik emakumezkoentzat dago.

KIROI KLUBA	KIROI MODALITATEA
Asociación deportiva ADEPOL de Portugalete	ATLETISMOA
Chien Karate Portugalete	KARATE
Jarrilleros Futbol de Portugalete	ARETO FUTBOLA
Casa de Andalucia	(FOLKLORE) TRADIZIOZKO JARDUERAK
Asti – Leku elkarte	FUTBOLA
Atletismo Portugalete	ATLETISMOA
Baloncesto Oribeltza Portugalete	SASKIBALOA
Atletismo Bihotz Aratz de Portugalete	ATLETISMOA
Balonmano Jarrilleras	ESKUBALOA
Bolos El Progreso	BOLA JOKOA
Boxeo Evolution de Portugalete	BOXEOA
Futbol Portugalete	FUTBOLA
Remo San Nicolas de Portugalete	ARRAUNA
Boxeo Contact-Box de Portugalete	BOXEOA
Ezkerraldea Triatloia	TRIATLOIA
Portugalete Futbol Sala	ARETO FUTBOLA
Deportiva Nautica Portugalete	IGERIKETA ETA WATERPOLO
Ganerantz Mendizale Taldea	MENDIZALETASUNA
Gure – Talde Mahai Tenisa	MAHAI TENISA
Iraultzaileak Futbol Sala	ARETO FUTBOLA
Izarra Pilota Elkarte	ESKU PILOTA

Jarrilleros Saskibaloia	SASKIBALOAIA
Peña de Ajedrez Portugalete	XAKEA
Sociedad Bolística San Roque	BOLA JOKOA
Sociedad Ciclista Iru – Herri	TXIRRINDULARITZA
Sociedad Lora – Barri	(FOLKLORE) TRADIZIOZKO JARDUERAK
Yamabuki Club de Judo	JUDO

Irudia 15. Portugaleteko kirol klubak.

UDAL INSTALAKUNTZAK

Portugaleteko Udalak biztanleria guztirako bideratuta dauden instalakuntzak ditu eta, bestalde, ikastetxe eta institutuen instalakuntzak ditu. Beraz, Portugaletek duen instalakuntza eskaintza oso zabala da.

UDAL INSTALAKUNTZAK
FUERTE SAN ROKE BOLERAK
LA FLORIDA FUTBOL ZELAIA
LOS LLANOS FUTBOL ZELAIA
RIVAS PARKEA FUTBOL ZELAIA
LOS LLANOS FRONTOIAK
BIDE GORRI
UDAL IGERILEKUAK
ZUBI ALDE POLIKIROLDEGIA
PANDO AISIA POLIKIROLDEGIA
GABRIEL CELAYA IKASTOLA
RUPERTO MEDINA IKASTOLA
ANTONIO TRUEBA IKASTETXEA
ASTI LEKU IKASTETXEA
EL CARMEN IKASTETXEA
SANTA ANA IKASTETXEA
KANPANZAR IKASTOLA
MAESTRO ZUBELDIA IKASTOLA
SANTA MARIA IKASTETXEA

